

## Galicia taberniaren historixa luzia



Naparrua aldeko familixa batek *Altxaga* tabernia ifiñi eben. Eta 1956ko San Andres egunian Ourenseko probintziatik etortritako **Manolo Alvarez** eta **Encarna Lamelas** andra-gizonak egin ziran Atzeko kaleko ardanegi horren kargu, *Galicia* izen barrixaz.

Txikiteorako tabernia ez ezik, bazkaitteko ata afaiteko lekua izan zan hasieratik, euren espezialidadia, gaillego jatorrai dagokixen moduan, urdaiazpikua eta olagarrua (pulpua) zirala. Orduko giro politiko zaillak eragindda, urte nahasi batzuk pasau bihar izan zittuain 1960ko hamarkadan. Aitta Manolo gazte samar hil zalako, Encarna alargunak obatu bihar izan otsan negoziuari **Mari Carmen** alaba gaziarekin eta 1973an Oñatira etorri zan honen gizonarekin, **Manolo Cambesekin**. Aspalditxuan honein bi semiak be, **Oskar** eta **Josuk**, tabernaritzaiari heldu xaue, harrezkero hiru jeneraziñok batera lan horretan dihardueilla.

Fotografixiak orain dala ehun bat urteko Atzeko kalia erakusten dosku. Etxiak itxuri batian eztira asko kanbixau, baiña ondo erreparau ezker, badira aldaketak, eta nabarmen samarrak batzuk. Espaloi gaiñian daguen ardaupelak *Txurrukane*ko tabernia etzala urrin demostraitten dosku.

J. E.

Argazkixa *Galicia* tabernakuak itzi doskue. Argibidiak, berriz, euron bidez eta Iñazio Madinaren bittartez eskuratu dittugu. Eskerrik asko danoi!

**J**an dan astian ospatu dittu Atzeko kaleko *Galicia* taberniak bere lehenengo berrogeta hamar urtiak. Ezta gutxi, benetan, halako negozio bateri hainbeste denboran familixa berak eustia. Baiña, asko izan arren, lokal horrek historixa luziagua dakola esan biharra dago. Seguru asko, gaur egunian, Arantzazuko batzuk kenduta, Oñatiko tabernarik zaharretakua izango da, zaharrena ezpada.

XX. gizaldixaren hasieran, orain dala ehun urte gutxienez, *Txurruka* izeneko tabernia eukan etxe horretan Pablo Madinak. Gerora, familixa bereko beste lehengusu batzuk plazako arkupeetakua hartu euelako, *Goiko Txurrukane*koa lez ezagutu zan. Gerra aurretik taberna oso popularra izan ei zan, orduko kirolzale eta lokal bariko talde politikuen billera-lekua. Jatetxia be bazan eta lehenengo pisuan ostatua eukan. Zenbat biajante, saltzaille, barrakero, enpliadu edo langille ez ete zan etorri bertara? Egun bat edo birako batzuk, hillabete askorako edo urtietarako beste batzuk.

Gerra ostian Madinatarrak jarraitu euen lehenengo hamarkadan, ostatu eta guzti. Baiña 1950 inguruan Oñatiko Azkargotarrak traspasau otsain. Honeik urte pare batian *El caserío* izeneko tabernia euki eta gero, Errenterixa fan ziran, han be *Oñate* izeneko taberna bat jartera. Ondoren